



**EBBren Prentsa Bulegoa**  
**EUZKADIko**  
**PRENTSA IDAZKOLA**



## **EAJ-PNVren Aberri Batzarrak 2030 Agendarekin duen konpromisoaren adierazpena**

Mundu osoaren onerako egin dezakegun guztiak zerikusi handia du Euskadiren eraikuntzarekin. Erantzukizun pertsonala, erkidego osoaren konpromisoa eta nazioarte mailan lan egiteko borondatea. Geure egiten dugu “Think global, act local” aldarria.

Gure herrialdea ezaguna da 2030 Agenda sustatzeko duen moduagatik. Nazio Batuen 2030 Tokiko Koalizioaren munduko egoitza Euskadin dago. Gure ekarpena egitea erabaki dugu, Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzera begira.

EAJ-PNVk konpromiso irmoa aldarrikatzen du 2030 Agendaren 17 helburuekin. Agenda horretan jasotzen dena onartu eta sustatzen du, berrikuntza politikorako bokazioarekin eta iraunkortasuna eta elkartasuna bultzatzen jarraitzeko erabakitasantarekin.

2030 Agendak gizateriarentzat garrantzi kritikoa duten hainbat eremu definitzen ditu: pertsonak, planeta, oparotasuna, bakea eta aliantzak. EAJ-PNVk ondorengo bost ardatz hauekin lotzen ditu bere konpromiso nagusiak:

- **PERTSONAK. Konpromisoa giza garapen solidarioarekin.** EAJ-PNVren lan politikoaren zentraltasuna islatzen du. Gizarte kohesionatu eta inklusibo baterantz aurrera egitea. Erabakitasantasuna gizarte- eta osasun-politikekin, hezkuntzarekin, kulturarekin, migrazioarekin, gazteekin, adinekoekin edo familiekin, eta, zeharka, genero-berdintasunarekin, aniztasun afektibo-sexualarekin, aniztasun funtzionalarekin eta menpekotasun egoeran dauden pertsonekin, ere.
- **PLANETA. Konpromisoa Giza Garapen Iraunkorrarekin.** EAJ-PNVk lehentasuntzat hartzen ditu klima-aldaketaren eta deskarbonizazioaren aurkako borroka, biodibertsitatearen defentsa, energia berriztagarrietarako trantsizioa, mugikortasuna eta garraio iraunkorra edo ekonomia zirkularraren aldeko apustua.
- **OPAROTASUNA. Konpromisoa Giza Garapen Bidezkoarekin.** Aukera-berdintasuna eta enplegua. EAJ-PNVk erabateko konpromisoa dauka hazkunde ekonomikoarekin eta industrializazio inklusibo eta iraunkorrarekin, bai eta enplegu betearekin eta pertsona guztientzako lan duinarekin eta kontsumo eta ekoizpen jarraibide jasangarriekin ere.
- **BAKEA. Konpromisoa Giza Garapen Demokratikoarekin.** Bakearen balioa ezagutzen dugu. Jakin dakigu bakerik ezak zer esan nahi duen eta ezagutzen dugu indarkeriak dakarren sufrimendu handi eta bidegabea. EAJ-PNVk giza eskubideak, askatasuna, aniztasuna eta printzipio demokratikoak aldarrikatzen ditu bizikidetzaren oinarri gisa.
- **ALIANZAK. Konpromisoa giza garapen erantzukidearekin.** Aliantzak eraikitzeko, elkarrekin erabakitzeko subjektuak behar dira. EAJ-PNVrentzat, euskal autogobernua norberarekiko erantzukizuna da –GIHekiko konpromisoa euskal gizartearen baitan bultzatzeko borondatea– eta erantzunkidetasuna –munduari laguntzeko gaitasuna–.

EAJ-PNVk bere ekintza politiko eta instituzionala lerrotatzen du Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuekin.



Bere nortasuna eta autogobernua babesteko gai den Euskadin sinesten dugu, baita mundu bidezkoago eta iraunkorrago batekin modu ireki, plural eta solidarioan konprometitzeko gai den Euskadin ere.

Aberastasuna, enplegua eta gizarte-kohesioa sortzeko gai izango den Euskadi bat nahi dugu, pertsonen berdintasuna, bizikidetzeta, osasuna eta garapen integrala ahalbidetzeko.

Planetarekiko konpromisoa lehen lerroan bultzatzeko, klima-aldaketa iraultzeko eta trantsizio ekologikoa eta energetikoa sustatzeko prest dagoen Euskadi bat sustatzen dugu.

Euskadi proaktiboa sustatzen dugu, giza eskubideen, iraunkortasunaren, justiziaren, oparotasunaren eta bakearen alde nazioarte osoan egingo diren ahalegin sendoenekin hitzemandan.

Giza garapen *solidarioa, iraunkorra, bidezkoa, demokratikoa eta erantzunkidea* lortu nahi dugu.



## Manifiesto de compromiso de la Asamblea Nacional de EAJ-PNV con la Agenda 2030

Aquello que seamos capaces de contribuir al bien común en el mundo tiene mucho que ver con la construcción de Euskadi. Responsabilidad personal, compromiso comunitario y vocación internacional. Hacemos nuestro el espíritu: “think global, act local”.

Nuestro país es reconocido por su modo de promover la Agenda 2030. La sede mundial de la Coalición Local 2030 de Naciones Unidas se ubica en Euskadi. Tenemos la determinación de aportar nuestro grano de arena al logro de los Objetivos de Desarrollo Sostenible.

EAJ-PNV proclama su opción y compromiso con los 17 objetivos de la Agenda 2030. Asume y promueve su contenido con una vocación de innovación política y con la determinación de seguir impulsando la sostenibilidad y la solidaridad.

La Agenda 2030 define “*cinco esferas de importancia crítica para la humanidad: personas, planeta, prosperidad, paz y alianzas*”. EAJ-PNV vincula sus compromisos centrales a estos cinco ejes:

•**PERSONAS. Compromiso con un desarrollo humano solidario.** Representa la centralidad de la acción política de EAJ-PNV. Avanzar hacia un sociedad cohesionada e inclusiva. Determinación con las políticas sociales y de salud, educación, cultura, migración, juventud, mayores, o familias y, de modo transversal, con la igualdad de género, la diversidad afectivo-sexual, la diversidad funcional y las personas en situación de dependencia.

•**PLANETA. Compromiso con un desarrollo humano sostenible.** EAJ-PNV asume como prioridad la lucha contra el cambio climático y la descarbonización, la defensa de la biodiversidad, la transición hacia las energías renovables, la movilidad y un transporte sostenible o la apuesta por la economía circular.

•**PROSPERIDAD. Compromiso con un desarrollo humano justo.** Igualdad de oportunidades y empleo. EAJ-PNV se compromete con un crecimiento económico y una industrialización inclusivos y sostenibles, con el empleo pleno y el trabajo decente para todas las personas y con pautas de consumo y producción también sostenibles.

•**PAZ. Compromiso con un desarrollo humano democrático.** Conocemos el valor de la paz. Sabemos lo que significa su ausencia y el sufrimiento inmenso e injusto de la violencia. EAJ-PNV proclama la prevalencia de los derechos humanos, la libertad, el pluralismo y los principios democráticos como cimientos de la convivencia.

•**ALIANZAS. Compromiso con un desarrollo humano corresponsable.** La construcción de alianzas requiere sujetos de co-decisión. EAJ-PNV concibe el autogobierno vasco como autorresponsabilidad –voluntad de impulsar el compromiso con los ODS hacia adentro de la sociedad vasca– y corresponsabilidad –capacidad de colaborar hacia el mundo–.

EAJ-PNV alinea el conjunto de su acción política e institucional con los Objetivos de Desarrollo Sostenible de Naciones Unidas.



Creemos en una Euskadi capaz de preservar su identidad y su autogobierno, así como capaz de comprometerse, de modo abierto, plural y solidario, con un mundo más justo y sostenible.

Queremos una Euskadi capaz de generar riqueza, empleo y cohesión social para hacer posible la igualdad, la convivencia, la salud y el desarrollo integral de las personas.

Promovemos una Euskadi dispuesta a impulsar en primera línea el compromiso con el planeta, revertir el cambio climático y promover la transición ecológica y energética.

Impulsamos una Euskadi proactiva y comprometida con los mejores esfuerzos internacionales por los derechos humanos, la sostenibilidad, la justicia, la prosperidad y la paz.

Aspiramos y trabajamos para un desarrollo humano: *solidario, sostenible, justo, democrático y corresponsable*.